

ESKU-HARTZE PSIKOSOZIALA TRATU TXARRAK GERTATZEN DIREN FAMILIETAN

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak > Tratu txarrak jasaten dituzten emakumeei edo familiei laguntza ematea

Fitxa laburtua kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio osoa.](#)

Norentzat

Babesgabetasun egoera larrian dauden pertsonak dituzten familiak.

Kostua

Doako zerbitzua.

Baldintzak

Babesgabetasun larria.

Erroldatze-**baldintzarik gabe.**

Zertan datza?

Familiako dinamika desagokien ondorioz (tratu txarrak, abandonua, arduragabekeria, abusuak...), kideren bat babesik gabe duten familiekin egiten diren esku-hartze sozial, hezitzaile edota terapeutikoak dira ([2.7.3.1 fitxa](#)). Esku-hartzeen helburua da:

- Familiei portaera desagokiak ordeztan laguntzea, kideak behar bezala zaintzeko behar diren gaitasunak eskuratuz.
- Familiako bizikidetza gehiago honda dadin saihestea.

Familiako esku-hartze espezializatu horiek banaka, familian edo taldean egin daitezke; baita

familiaren etxean bertan, bai etxetik kanpo.

Norentzat?

Kideren bat, adingabea edo adinez nagusia, babesgabetasun larrian duten **familiak**.

Zenbat balio du zerbitzuak?

Doako zerbitzua da.

Zer baldintza bete behar ditut eskatzeko?

Familiako kideren baten **babesgabetasun larriaren** diagnostikoa.

Ez da beharrezkoa aldezturik erroldatuta egotea adingabeekin esku hartzen denean.

Genero-indarkeriaren biktimei ez zaie inolako administrazio-baldintzarik eskatzen.

Non eska dezaket zerbitzua?

Zure auzo, udalerri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan**. [SATEVI](#) zerbitzuan informazio espezializatua eman diezazukete- 900 840 111

Informazio gehiago:

- [Esku-hartze psikosoziala tratatu txarrak gertatzen diren familietan Araban](#)
- [Esku-hartze psikosoziala tratatu txarrak gertatzen diren familietan Bizkaian](#)
- [Esku-hartze psikosoziala tratatu txarrak gertatzen diren familietan Gipuzkoan](#)

[Kontsultatu informazio osoa](#)